


LARROTXENE BASERRIA
C MAILA

INTXAURRONDO 57



Data eta egilea: ezezagunak

Deskribapena

Kultura etxerako eraberritutako baserria. Behe oina, lehen oina eta bi isurkiko zurezko estalkipeko bigarren oina ditu. Alboko fatxadetako harlangaitz horma agerian geratu da, bai eta fatxada nagusiaren bilbaduran barne hartutako adreilua ere, goiko solairuetan. Azpaduretan eta izkinetan harlanduzko piezak daude. Barne eraberritzeko lanetik bi hegalkin irteten dira alboko fatxadetan, horietako bat bao berri baten leihoburu gisa eta begiratoki baten euskarritzat.

Babes erregimena

- 1.- Babes erregimen orokorra:
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
 - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: leihoen arotzeria eta hormigoizko hegalkinak.
 - B.- Fatxadaren elementu iraunkorrak: harlanduzko elementuak eta zurezko egitura bilbaduran eta estalkian.
 - C.- Handitzeko edo aldatzeko murrizketa partikularrak: jasodurak ez dira onartzen.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.